Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1762

AGINDUA, 2009ko martxoaren 3koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena. Honen bitartez, ingurumena babestera zuzendutako inbertsioak egiteko enpresei emandako diru-laguntzen inguruan 2007ko ekitaldirako deialdia ebazten duen 2007ko abenduaren 28ko Agindua aldatzen da.

Gertakariak: apirilaren 23ko 91/2002 Dekretu bidez, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko, enpresentzako diru-laguntzen banaketa egitea erregulatzen da.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko maiatzaren 30eko Aginduaren bitartez, apirilaren 23ko 91/2002 Dekretu horretan aurreikusitako diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea ezarri zen 2007. ekitaldirako.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 28ko Aginduaren bitartez, apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan aurreikusitako 2007ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia ebatzi zen.

2007ko abenduaren 28ko Agindu horren I. eranskinean diru-laguntza jaso duten enpresen zerrenda, diru-laguntzen zenbatekoa eta zein proiektu burutzeko diren jasotzen da, eta II. eranskinean diru-laguntza eskaria ukatua izan duten enpresen zerrenda eta ukapen horren arrazoiak agertzen dira.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 28ko Aginduaren aurka (apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan aurreikusitako 2007ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia ebatzi zuen), lau berraztertze-errekurtso jarri dira organo honetan. Horietatik hiru onartu dira eta bat atzera bota da.

Equipos de Transmisión, S.A., Aceros Inoxidables Olarra, S.A. eta Fertor Bedia, S.L. enpresek jarritako berraztertze-errekurtsoak onartzen dituzten Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aginduetan Balorazio-epaimahaia berriro eratzeko agindua ematen da, aipatutako enpresek aurkeztutako eskariak aztertu eta baloratu ditzan.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1762

ORDEN de 3 de marzo de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se modifica la Orden de 28 de diciembre de 2007 por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

Resultando que mediante Decreto 91/2002, de 23 de abril, se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

Resultando que mediante Orden de 30 de mayo de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se establece para el ejercicio 2007, el plazo para la presentación de solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en el citado Decreto 91/2002, de 23 de abril.

Resultando que mediante Orden de 28 de diciembre de 2007 de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

Resultando que en el anexo I de la citada Orden de 28 de diciembre de 2007 se recoge la relación de empresas cuyos proyectos han resultado subvencionados, así como los importes de las correspondientes subvenciones y en el anexo II la relación de empresas cuyas solicitudes de subvención han sido denegadas, indicando los proyectos y motivos de la denegación.

Resultando que dentro del plazo establecido al efecto se interponen ante este órgano cuatro recursos de reposición contra la Orden de 28 de diciembre de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones previstas en el Decreto 91/2002, de 23 de abril, de los cuales tres son estimados y uno es desestimado.

Resultando que en las Ordenes de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio por las cuales se estiman los recursos presentados por las empresas Equipos de Transmisión, S.A., Aceros Inoxidables Olarra, S.A. y Fertor Bedia, S.L. se ordena la constitución del Tribunal Calificador al objeto de que proceda al análisis y valoración de las solicitudes de subvención presentadas por las citadas empresas.

2009ko martxoaren 3an Balorazio-epaimahaia eratu da apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuaren 12. artikuluaren arabera, eta aktan honako akordioa jasotzen da: diru-laguntza gehigarri hauek ematea ondorengo enpresek aurkeztutako proiektuei: Equipos de Transmisión, S.A.: 656,35 euro; Aceros Inoxidables Olarra, S.A.: 147.931,04 euro eta Fertor Bedia, S.L.: 8.238,75 euro.

Hori guztia dela eta, egoki da apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan aurreikusitako 2007ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia ebatzi zuen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 28ko Agindua aldatzea, I. eta II. eranskinak Balorazio-epaimahaiak egindako balorazio berrira egokitzeko, jarritako zenbait berraztertze-errekurtso onartzen dituzten Aginduetan jasotzen den bezala.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Agindu hau emateko eskuduntza Organo honi dagokio.

Ondoko xedapen hauek guztiak ikusi dira: ingurumena babestera zuzendutako inbertsioak egiteko enpresei diru-laguntzak ematea erregulatzen duen apirilaren 23ko 91/2002 Dekretua; apirilaren 23ko 91/2002 Dekretu horretan aurreikusitako diru-laguntzak jasotzeko 2007. ekitaldirako eskaerak aurkezteko epea ezartzen duen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko maiatzaren 30eko Agindua; apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen 2007ko ekitaldirako deialdia ebazten duen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 28ko Agindua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; eta orokorrean aplikatu beharreko gainerako arauak. Eta horiek guztiak ikusita, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– 2007ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia ebatzi zuen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2007ko abenduaren 28ko Agindua aldatzea, diru-laguntza jasotzen duten proiektuei buruzko I. eranskinean ondorengo kopuru hauek gehituz:

Resultando que el Tribunal Calificador se ha constituido el 3 de marzo de 2009 de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 de Decreto 91/2002, de 23 de abril, recogiéndose en el acta levantada al efecto que los proyectos presentados las siguientes empresas deben ser subvencionados con los siguientes importes adicionales: Equipos de Transmisión, S.A. con 656,35 euros, Aceros Inoxidables Olarra, S.A. con 147.931,04 euros y Fertor Bedia, S.L. con 8.238,75 euros.

Considerando que por todo lo expuesto procede modificar la Orden de 28 de diciembre de 2007 de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente, en orden a adecuar los anexos I y II de la misma a la nueva valoración realizada por el Tribunal Calificador en cumplimiento de lo dispuesto en las órdenes por las que se estiman algunos de los recursos de reposición interpuestos.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la competencia para la emisión de la presente Orden corresponde a este Órgano.

Vistos el Decreto 91/2002, de 23 de abril, por la que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente, la Orden de 30 de mayo de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se establece para el ejercicio 2007, el plazo para la presentación de solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en el citado Decreto 91/2002, de 23 de abril, la Orden de 28 de diciembre de 2007, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones previstas en el Decreto 91/2002, de 23 de abril, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero y el resto de la normativa de general aplicación,

DISPONGO:

Primero.– Modificar la Orden de 28 de diciembre de 2007 por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2007, de las subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente, incorporando al anexo I, relativo a los proyectos objeto de subvención, los siguientes importes:

Enpresa/ *Empresa*	Proiektua/ *Proyecto*	Zenbatekoa (eurotan) / *Importe (en euros)*
Equipos de Transmisión, S.A.	Hondakinen kudeaketarako instalazioak egokitzea / *Adecuación de instalaciones para la gestión de residuos*	656,35 euro/*euros* Gehigarriak/*Adicionales*
Aceros Inoxidables Olarra, S.A.	Altzairutegiko xurgaketa-sistema handitzea / *Ampliación de la aspiración de la acería*	147.931,04 euro/*euros* Gehigarriak/*Adicionales*
Fertor Bedia, S.L.	Atmosferara egindako isurketak xurgatu eta iragazteko sistema / *Sistema de aspiración y filtración de emisiones atmosfericas*	8.238,75 euro/*euros* Gehigarriak/*Adicionales*

Bigarrena.– Equipos de Transmisión, S.A., Aceros Inoxidables Olarra, S.A. eta Fertor Bedia, S.L. enpresei Agindu honen edukia jakinaraztea.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratzea, diru-laguntzak emateko jardunbide orotan egon behar duen jakinarazpen printzipioa betetzeko.

Laugarrena.– Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera; bestela ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 3a.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

Segundo.– Comunicar el contenido de la presente Orden a Equipos de Transmisión, S.A., Aceros Inoxidables Olarra, S.A. y Fertor Bedia, S.L.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente orden en el Boletín Oficial del País Vasco, dando cumplimiento al principio de publicidad que debe presidir todo el procedimiento de concesión de subvenciones.

Cuarto.– Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en el plazo de un mes a contar desde su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a contar desde la notificación de la misma, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la jurisdicción contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2009.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.